

maskara iragazkidunak
erabiltzeko jarraibide
orokorrak

15

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOAK

Ondorengo jarraibidean azalduko ditugu material erdizurrunez egindako maskara hauen ezaugarriak: lotura-uhalak batetik (begi-babesleekin edo gabe), eta gasetarako, lurrunetarako eta horiek biak kutsatzaile partikulatuekin nahasten direnerako uhal horietan jartzen diren iragazki bereziak bestetik.

HORRI DAGOZKION ARRISKU NAGUSIAK

● KIMIKOAK ETA PARTIKULAK

- Honelako maskarak kutsatzaile kimiko eta partikulen eraginpean lan egiten duten langileen arnas babeserako gomendatzen dira.
- Iragazkietan behar bezala zehaztuko da zein produktu kimikotarako (gas, lurrun edo partikuletarako) diren. Edozein iragazki ez da eraginkorra zernahi kutsatzaileraren aurka.
- Maskara honek langileari ez dio oxigenorik ematen, beraz, ez dira erabili behar oxigeno gutxi dagoen eguratsetan.



Ekipamenduarekin (maskara eta iragazkiekin) batera datorren jarraibide-orria adi irakurri, eta jarraitu bertan emandako oharrak. Ondoren azalduko direnak edozein modelotarako balio duten oinarritzko arauak dira.

- 1** Ez erabili maskara bertan azaltzen diren arauekin bat egiten ez duten baldintzetarako.
- 2** Ez dira inoiz aldatu behar ez maskara ezta iragazkiak ere, eta ez dira erabili behar **balio-bizitza** amaitu ondoren. Arreta berezia jarri **produktuaren iraungitze-datari**.
- 3** Ez erabili bizarra edo aurpegian ilerik duzunean, edo maskararen ertzen eta aurpegiaren zuzeneko kontaktua eragozten duen zer edo zer duzunean.
- 4** Aldatu berehala maskara eta/edo iragazkiak kasu hauetan:
 - maskara edo iragazkiak kaltetuta daudenean.
 - arnasa hartzea zaila denean.
 - zorabioak edo ondoeza sentitzen dituzunean.
 - kutsatzaileen zaporea edo usaina nabaritzen duzunean edo narritadura sortzen zaizunean.
- 5** Maskara aurpegian doitzen da eta zati hori garbitzea gomendatzen da txanda bakoitzaren ondoren. Horretarako, xaboi-ur epelean bustitako trapu bat erabili eta giro-tenperaturan lehortzen utzi. Garbitzeko **EZ SARTU** uretan maskara.
- 6** **Maskarak eta dagozkion iragazkiak jatorrizko ontzian gorde behar dira, eremu kutsatutik KANPORA.**
- 7** Maskara hauek ez dute oxigenorik ematen.

IPINTZEKO MODUA



- 1 Doitu albo-banden neurria



- 2 Ipin maskara aurpegian, sudurraren gainean eroso edukitzeko moduan, eta arnesa buruaren goialdean. Beharrezkoa balitz, kendu maskara eta doitu berriz arnesa beste luzera batera.



- 3 Arnesa doitzen amaitzeko jarri maskara, eta tira gero banden aurreko bi muturretatik.



- 4 Presio positiboa izateko doitze-proba bat egin, era honetan: Ipin ezazu esku-ahurra arnasa hartzeko balbula eta arnasa hartu emeki. Maskara ongi doitu da egongo da pixka bat puzten bada eta ez bada airerik irteten maskararen ertzen eta aurpegiaren artetik. Aire ateratzen dela detektatuko balitz, ipini berriro maskara eta eusteko banden eta arnesaren tentsioa doitu berriz. Doitzeko proba berriz egin. Ez baduzu doitze egokia lortzen, emaitza horren berri zure gaineko arduradunari ekipamendua aldatzeko.